



Inkesta:

Telelana Irakaskuntzan
Hego Euskal Herrian



www.steilas.eus

Inkesta: Telelana Irakaskuntzan Hego Euskal Herrian

Aurkibidea

1. Inkestaren unibertsoa	4
2. Eskola eta lankideekin harremana	5
3. Lana etxetik egiteko arazo teknikoak	6
4. Lana etxetik egiteko arazo pertsonalak	7
5. Ikasle eta familiekin harremana	8
6. Modu telematikoan lan egiteko prestakuntza	10
7. Ikasleen ehunekoa lanak egiten	11
8. Etxetik lan egiteko baliabiderik ez duten ikasleak	11
9. Gizarte bazterketa arriskua duten ikasleen errendimenduan konfinamenduak eraginik izan du?	12
10. Baliabide berezirik eskaini zaie?	12
11. Txanda librean	13



“Ahal duguna eta gehiago ematen ari gara”

COVID19ak hezkuntzan sortutako egoerak guztion egunerokoa berrantolatzen eraman gaitu. Berrantolaketak gure hezkuntza sistemaren josturak kolokan ipini ditu: ikasle asko galdu dira bidean, gure lan zama ikaragarri igo da, ziurgabetasun handia dugu egiten ari garenekin eta zalantzaz beteta dugu etorkizuna hezkuntzako langileok.

STEILASen gogoeta plazaratu eta ondorio garbi bat atera genuen: egoera zein den ahalik eta modu zehatzenean antzemateko datuak ezinbestekoak zirela. Horretarako inkesta bat prestatu eta telelanean zenbiltzaten langileei bidali genizuen. Erantzuna ikaragarria izan da, eta horrek sinesgarritasun handia eman dio gure lanari. Hego Euskal Herrian 1.500 langile inguruk erantzun duzue.

Ondorio asko atera ditzakegu, zonaldeka banatuz, etapak ezberdinduz, espezialitateak bereiziz... baina badira bi ondorio ukaezin: lan zama asko igo dela eta zailtasunak zailtasun, egoera berrira ondo egokitu zaretela.


Hezkuntzako langileon konpromisoa behar den moduan aitortu beharra dago. Gure ikasleen hezkuntza eskubidea bermatzeko ikaragarriko ahalegina egiten ari zarete, eta horrek, esker ona merezi du. Inkestan “Ahal duguna eta gehiago ematen ari gara” bezalako erantzunak irakurtzeak hunkitzen gaitu.

Sindikatuak egoera berriak sortutako beharrak asetzeko eskaerak mahaigaineratu dizkio Hezkuntza Sailari, argibideak eskatu dizkiogu eta proposamenak egin ditugu. Aldi berean duela hilabetera arte mahai gainean genituen aldarrikapenei tinko eutsiko diegu; koronabirusa joango da, baina ratioen jaitsiera, 60 urtetik gorako langileen erretiroa edo eros ahalmenaren berreskuratzeak gure lan agendan jarraituko dute.

Sindikatutik gure eskerrik beroena luzatu nahi dizuegu zuen etxean, askotan baldintza zailetan, lanean ari zareten hezkuntza komunitateko langile guztiei.

1. Inkestaren unibertsoa

Etapak	Erantzunak	%
0-3 HH	79	5,31
3-6 HH	120	8,06
LH	493	33,11
DBH	399	26,80
Batxilergoa	133	8,93
HHE	17	1,14
Lanbide Heziketa	136	9,13
HEO	8	0,54
Uni	35	2,35
Hezitzaileak	8	0,54
PT + ALE	18	1,21
IRALE + Berritzegune + Irakasleen prestakuntza	11	0,74
Beste batzuk	13	0,87




Inkesta hau hezkuntzako 1.500 langilek erantzun dute, bereziki telelanean dabilzanak. Erantzun gehienak, irakasle kopuru handienak dituzten mailatako irakasleenak izan dira, hau da, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak. Lanbide Heziketa, Batxiler, Unibertsitate eta Haur Hezkuntzako irakasleengandik jasotakoak ere kuantitatiboki esanguratsuak dira eta lagin nahikoa azterketa zuzen bat egiteko. Gainontzekoen erantzun kopurua oso txikia da eta hauen erantzunak datu orokorretan sartu baditugu ere, mailaka egingo ditugun azterketa batzuetan kanpoan gera daitezke.

2. Eskola eta lankideekin harremana

	Erantzunak	%
Telefonoz	829	55,64
Posta elektronikoz	1.319	88,52
Bideo konferentziaz	1.005	67,45
Plataforma bidez (classroom, moodle...)	716	48,05
Mezularitzaz (telegram, whatsapp...)	970	65,10
Besteak (presentzialki...)	37	2,48
Guztira*	1.490	100,00

* Bakoitzak erantzun bat baino gehiago eman dezake.



Inkestak ikusita, langileak eskolarekin edo beraien lankideekin harremanetan jartzeko modua aldatu egin dela baieztatzen dugu. Nahiz eta posta elektronikoa lehen aukera izan (horrek ez gaitu harritzen, lanak elkarbanatzeko ezinbestekoa izan daitekeelako), nabarmen egin dute gora bideo konferentziek eta mezularitza aplikazioek (gehienbat whatsappak), telefonozko komunikazioaren kalterako. Nork esango luke duela gutxi, urrun dagoenarekin harremanetan jartzeko telefona laugarren aukera izan zitekeenik?

3. Lana etxetik egiteko arazo teknikoak

	Erantzunak	%
Bai	161	10,85
Ez	1.323	89,15
Guztira	1.484	100,00




Gabezi nagusiak (762 erantzun):

- Gailu elektronikoak: ordenagailua, inpresora, eskanerra, kamera...
- Espazioa, lanerako leku egokia: gela, mahaia, aulkia...
- Internet konexio hobea
- Materiala: arbela, papera, margoak, kartulina...

4. Lana etxetik egiteko arazo pertsonalak


	Erantzunak	%
Bai	389	26,41
Ez	1.084	73,59
Guztira	1.473	100,00



Arazo nagusiak (482 erantzun):

- Seme-alaben zaintza
- Adineko pertsonen zaintza
- Ordutegiaren malgutasun falta
- Ordutegi luzeegia
- Lan-karga
- Lan administratiboen gainkarga
- Lasaitasun/isiltasun falta
- Bakardadea

Etapak	Bai	Ordu gehiago	Ordu gutxiago	Bai (%)	Ordu gehiago (%)	Ordu gutxiago (%)
0-3 HH	32	20	23	43	27	31
3-6 HH	38	61	18	32	52	15
LH	109	329	51	22	67	10
DBH	85	299	13	21	75	3
Batxilergoa	27	102	2	21	78	2
HHE	5	7	4	31	44	25
Lanbide Heziketa	38	93	3	28	69	2
HEO	3	6	0	33	67	0
Unibertsitatea	16	15	4	46	43	11
Hezitzaileak	4	2	2	50	25	25
PT + ALE	11	6	2	58	32	11
Guztira	382	959	128	26	65	9




Orokorrean langileen bi herenek lan ordu gehiago sartu behar izan dituzte, bereziki DBH eta Batxilergoan. Azken hauetan inkestak % 75ak baino gehiagok dio lan orduak gora egin dutela.

5. Ikasle eta familiekin harremana

Etapak	Telefonoz	Posta elektronikoz	Bideo konferentziaz	Plataforma	Mezularitzaz	Erantzunak
0-3 HH	33	66	6	14	23	78
3-6 HH	60	108	25	20	37	118
LH	272	452	135	228	128	484
DBH	175	360	224	327	40	395
Batxilergoa	27	120	85	110	13	133
HHE	9	16	4	8	8	17
Lanbide Heziketa	44	120	87	99	48	134
HEO	1	7	2	4	0	8
Unibertsitatea	7	32	28	31	10	33
Hezitzaileak	2	5	1	0	0	6
PT + ALE	6	13	7	6	4	17
Guztira	653	1.331	610	855	322	1.461

Etapak	Telefonoz	Posta elektronikoz	Bideo konferentziaz	Plataforma	Mezularitzaz
0-3 HH	% 42	% 85	% 8	% 18	% 29
3-6 HH	% 51	% 92	% 21	% 17	% 31
LH	% 56	% 93	% 28	% 47	% 26
DBH	% 44	% 91	% 57	% 83	% 10
Batxilergoa	% 20	% 90	% 64	% 83	% 10
HHE	% 53	% 94	% 24	% 47	% 47
Lanbide Heziketa	% 33	% 90	% 65	% 74	% 36
HEO	% 13	% 88	% 25	% 50	% 0
Unibertsitatea	% 21	% 97	% 85	% 94	% 30
Hezitzaileak	% 33	% 83	% 17	% 0	% 0
PT + ALE	% 35	% 76	% 41	% 35	% 24
Guztira	% 45	% 91	% 42	% 59	% 22




Irakasleak ikastetxe edo lankideekin komunikatzeko lehen aukera gisa posta elektronikoa erabiltzen zuten bezala, kasu honetan ere aukera hau errepikatzen da. Oraingo honetan indarra hartu duen beste aukera plataforma bidezko komunikazioa da, mezularitzaren kalterako. Azken aukera honek gero eta erabilera handiagoa du adinak gora egiten duen heinean, % 83ra iristen delarik edo % 94a unibertsitatean.

Telefonoaren erabilera % 45 inguruan dabil. Kasu honetan joera plataformekin gertatzen zenaren aurkakoa da, ikasleen adina aurrera doan heinean, telefono bidezko komunikazioa orduan eta txikiagoa da. Horrela, Haur Hezkuntzan edo Lehen hezkuntzan telefonoz komunikatzeko aukera inkestatuen % 50tik gora markatu duten moduan, Batxilergo edo Unibertsitatean aukera honek % 20 erabilera du gehienez. Bideo konferentzia askoz errotuago dago Batxilergo, Lanbide Heziketa edo Unibertsitatean, azken honetan % 85era iristen delarik. Adin txikiagoetan apenas erabiltzen den baliabide bat da.

6. Modu telematikoa lan egiteko prestakuntza

	Erantzunak	%
Bai	568	38,17
Nere kabuz, autodidakta	52	3,49
Erdizka, ikasten	201	13,51
Ez	667	44,83
Guztira	1.488	100,00




Galdera honek irakurketa desberdinak dauzka eta batzuk ikastetxetik prestakuntza nahikoa jaso duten ulertu dute eta beste batzuk berriz, ea norberak telematikoki lan egiteko nahikoa prestakuntza badaukan. Horrela, suposa dezakegu, EZ erantzun duten gehienak lehenengo taldekoak direla, maila batean edo bestean telematikoki lanean ari direlako, posta elektronikoz, plataformen bidez, bideo konferentziaz edo mezularitzaz. Ezin dugu inolaz ere pentsatu ez jarri dutenak telematikoki lan egiteko gai ez direnik. Galdera irekia zenez, askok beraien kabuz prestatu direla esan digute eta beste batzuk ekinarekin ikasten ari direla.

7. Ikasleen ehunekoia lanak egiten

Maila	%
3-6 HH	68
LH	75
DBH	78
Batxilergoa	85
HHE	48
Lanbide Heziketa	78
HEO	48
Unibertsitatea	82
Bataz beste	77

Nahiz eta Helduen Hezkuntzan eta Hizkuntza Eskolan etxetik lan egiten duten ikasleen kopurua %50era ez iritsi, gainontzeko mailetan jarraipena %80 ingurukoa da, Batxilergoko ikasle "langileen" kopurua %85era iristen delarik. "Ez dakit" idatzi digutenen erantzunak baztertu egin ditugu ehunekoak ateratzekoan. Kasu hauetan irakasle-ikasleen artean dagoen feedbacka ez da ona, eragin handiena arrakala teknologiko-digitalak duelarik.



8. Etxetik lan egiteko baliabiderik ez duten ikasleak

Galdera irekia izanik, hemen ezingo dugu analisi kuantitatibo bat egin, baina erantzunak aztertuz gero joera batzuk nabarmen antzeman daitezke. Agian gehiegi orokortzea izan daiteke baina baliabiderik ez duten ikasleei begira, hiru gela desberdin egon daitezkeela erakusten digu azterketak. Batetik, holako ikasle motak ez dituzten gelak, bestetik bizpalau dituztenak eta %50tik gora dituztenak. Inkestak begi-bistan uzten digu ere, ikasmilak gorantz doazen heinean, klase honetako ikasleak gero eta gutxiago direla. Hau da, Lehen Hezkuntzan holako kasu gehiago ematen dira DBHko bigarren zikloan, Batxilergoan edo Unibertsitate mailetan baino.

Azken, honek besteak beste, garbi uzten du baliabiderik ez duten ikasleek eta eskola porrotak duten erlazio zuzena.

9. Gizarte bazterketa arriskua duten ikasleen errendimenduan konfinamenduak eraginik izan du?

Etapak	Bai, txarreruntz		Aldaketarik ez		Ez dakit
0-3 HH	6	% 8	12	% 15	% 77
3-6 HH	30	% 25	28	% 23	% 52
LH	207	% 42	140	% 28	% 30
DBH	196	% 49	114	% 29	% 22
Batxilergoa	33	% 25	71	% 53	% 22
HHE	6	% 35	4	% 24	% 41
Lanbide Heziketa	35	% 26	58	% 43	% 32
HEO	0	% 0	2	% 25	% 75
Unibertsitatea	0	% 0	16	% 46	% 54
Hezitzaileak	0	% 0	2	% 25	% 75
PT + ALE	10	% 56	1	% 6	% 39
Guztira	532	% 36	457	% 31	% 34

Ikasmila batzuetan EZ DAKIT edo erantzun ez dutenen kopurua oso handia da, %75 ingurukoa baina hauek ez dute azken emaitzan eragin handirik sektore txikiak baitira. Derrigorrezko etapetan, erantzun gehien jaso ditugun etapak izanik, argi ikusten da adinean aurrera joan ahala ikasleen errendimenduan konfinamenduak eragin handiagoa izan duela, horrela, Haur Hezkuntzan ikasleen %25engan izan duen bezala, Lehen Hezkuntzan % 42rengan izan du eta DBHn (gehienbat lehen zikloan) ikasleen %49a izan da kaltetua. Errendimenduan galera txikiena jasan duten ikasleak Batxilergokoak edo Unibertsitatekoak dira, zoritxarrez gizarte-bazterketa arriskua duten ikasleak apenas iristen diren etapetan. ALDAKETARIK EZ erantzunak kasu guztietan ez du esan nahi ikasleen errendimendua ona denik, baizik eta eskolan errendimendu txarra duten ikasleek bere horretan jarraitu dutela.

10. Baliabide berezirik eskaini zaie?

Galdera irekia izanik erantzun desberdin asko jaso ditugu eta gehien errepikatu direnak zerrendatuko ditugu:

Lanak paperean: lan hauek jasotzeko aukerak ere anitzak izan dira. Lanak eskura eman dituztenak izan dira ikastetxean, udaletxean edo irakasleak berak ikasleen etxera eramanez. Posta arruntez ere bidali izan dira.

Baliabide teknologiko-digitalak: ikastetxe askotan eskola bertako ordenagailuak, portatilak edo chromebookak utzi edo maileguan eman zaizkie. Internet seinalea WIFI bidez bermatu zaie edo SIM txartelak ere eman zaizkie. Udaletxe askok ere holako baliabideak eman dizkie bazterketa arriskuan dauden ikasle hauei.

Arreta pertsonala: gainontzeko ikasleek arreta pertsonala jasotzen badute ere, hauei are eta handiagoa ematen zaie. Familiei eta ikasleei telefonozko arreta erabatekoa ematen zaie kasu askotan beraiekin harremanetan jartzeko aukera bakarra delako. Badakigu ikasleen % 12a "desagertuta" dagoela eta ikastetxeek ez dutela beraiekin kontaktatzea lortzen. Kasu batzuetan ikasleek edo gurasoek ikasketekiko duten interes faltagatik izan daiteke, eta beste askotan hauekin harremanetan jartzeko aukerarik ez dagoelako (telefonorik ez, helbide finkorik ez...).

Ezer ez: erantzun hau gutxi gora behera 30 inkestatuek eman digute. Hunkigarria da "Ahal dugun guztia ematen diegu" bezalako erantzunak irakurtzea.

11. Txanda librean

Azken puntu honetan, galdera irekian langileek beraien erantzunetan azaldutako zailtasun eta arazo nagusienak zerrendatu ditugu. Hauetako asko aurrez ikusitako puntuetan ere azaldu dira.

Lan zama handiegia: langileen ehuneko handi baten ustez telelanak lan zama nabarmen handitzea ekarri du. Arrazoi ezberdinak eman dituzte: telelanari egokitu beharra, egun osoa konektatua egon beharra, materialak egokitu beharra... Esan daiteke hurrengo arrazoi asko lan zama handitzearekin lotuta daudela.

Prestakuntza eza: egoera berrira egokitzeko formakuntza falta aipatu dute arazo nagusi bezala. Aplikazioak ez menperatzea, materialak moldatzea...

Ikasleen baliabide/formakuntza/ohitura eza: langileen prestakuntza ezari ikasleen formakuntza falta gehitu behar diogu. Horrela, ikasle beraiek dituzten gabeziak irakasleen buruhauste handienetako bat bihurtu da. Ikasle askorekin kontaktatzea ez dute lortu. Askotan aipatu dute eskolan arazoak dituzten ikasleak direla egoera honetan aurkitzen direnak.

Irakasleen baliabide digitalen falta: irakasleen arazo nagusienetako bat baliabide nahikorik ez izatea dela adierazi digute: konektagarritasun arazoak, material informatikoa, arbela digitala ez izatea, ...

Familiekin komunikazioa: familiekin dituzten komunikazio arazoak dira beste buruhauste nagusienetako bat. Ikasle kopuru handi bat "desagertua" dagoela esan daiteke.

Inprobisazioa/ziurgabetasuna: erabakiaren azkartasunak sortutako inprobisazio egoerak eta etorkizunari buruz dagoen ziurgabetasunak ere arazo nagusienetakoak bihurtu dira.

Materialak egokitu beharra: aurrez aurrekoan eskolan erabiltzen dituzten materialak telelana egiteko ez dira egokiak eta hauek moldatu beharrak lan karga gehigarria izatea ekarri du.

Kontziliazioa eta telelana: bi alderdi hauen uztartzea da langileentzat beste buruhauste nagusienetako bat.

Ikasle etorri berriak/ikasleen hizkuntza: ikasleek bertako hizkuntza ofizialak ez ezagutzea ere arazo bihurtzen da. Gurasoek ere ez dituzte hizkuntza ofizialak ezagutzen eta honi familia hauek duten maila sozioekonomikoa gehitzen badiogu arazoa biderkatzen da.

Hauetaz gain, **beste zailtasun batzuk** ere aipatu dituzte: ebaluatzeko arazoak, burokrazia gehiegi, ordezkapen eza, ordutegiaren malgutasun falta, administrazioaren aldetik gehiegizko kontrola...